



Aste Santuko prozesiñua (1946-4-19)

Ontzurarte Aste Santua iñora urten barik pasatzen zan. Aitxa, ama ta umiak danak elixara juatia izaten zan zeregin bakarra, beste dibersiñurik barik.

Zortzi egun lehenao Garizumako ejerzixuak eitxen zian. Eguen eta Barixaku Santu egunetan, prozesiñuan urteten zan kaleik kale.

Prozesiñorako lau imajen etaratzen zian: Flagelaziñua (Judas ta Pilatos izenakin ezaututakua), Dolorosia, San Juan ta Jesusen enterrua (kristalezko kutxa baten).

Dolorosia ta San Juan kapa edar banakin janzten zian, bata baltza ta gorrixa bestiak. Dolorosia ta kristalian gordetako Jesus Ermuko parrotxian ikusi leikez ointxe be.

Prozesiñua geldi geldi juten bazan be, aurrekal-dian umiak saltoka ta antxitxiketan eitxen eben bidia.

Umien ondoik gizonak, Aiuntamientuan Plenua ta bandako musikuak. Danen atzetik, andrak. Ume txikiak ekezen andrak ezin ba elixara jua ta bide baztarretatik begira egoten zian umeren bat lepuan harfuta.

Sasoi baten anderuei elixiak dirua emoten zou-tsien. Haraz diruaz antxoak erosi ta Eguen Santu egu-nian jendiaren artian partitzen zian herriko tabernetan. Barixakua, jai haundi lez, barau egun gogorra izaten zan ta Pasko Egunerako gordetzen zian fruta, madale-na, bildots edo garbantzuok.

Udabarrixaren hasieria ta Aste Santua sarritxan bat eitxen zianez, erropa barriren bat eitxeko atxakixia izaten zan; zapatak, trajeren bat edo detailltxoren bat estrenatzia izaten zan gauziori.

Urtero be zein izaten zan erropa barririk ein, urte birik baten tokau ezkerro be pozik!.

Egun batzuk barru 50 urte betetzen dia erretratu hau etara zala. Bertan, Judas ta Pilatosen andia erua-ten Jose Luis Zubizarreta, Luis Ziarsolo, Rafael Bustindui, Castro Salaberria eta Alejandro Gandiaga. Andiaaren inguruan Jose Onandia, Ignacio Ezkurdia, Ana Mari Cardaño, Juan Ganboa, Manu Solozabal, Loren Goitandia, Teodoro Zubizarreta, Mariano Goitandia, Enrique Garate ta Balbino Ganboa ikusi leikez.